

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2767

AGINDUA, 2024ko maiatzaren 29koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez behin betiko ebazten baita Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen hizkuntza eta/edo lanpostuagatik bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa.

Ikusi da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2024ko otsailaren 8ko Aginduaren bidez deitutako lekualdatze-lehiaketa espezifikoko ondorioz izapidetutako espedientea. Agindu horren bidez, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen hizkuntza eta/edo lanpostu berezituak dituzten lanpostuak betetzeko deialdia egin zen.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoko VI. liburuko VIII. tituluaren eta abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak onartutako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamenduaren 43. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Behin betiko ebaztea Auzitegi Medikuntzako Kidegoko funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2024ko otsailaren 8ko Aginduaren bidez deitua, eranskinean zerrendatzen den bezala.

Bigarren artikulua.– Iraungitzaletzat jotzea lehiaketa honetan parte hartu dutenek aurkeztu eta destituzio lortu ez duten eskabideak. Beraz, ez dira kontuan hartuko hurrengo lekualdatze-lehiaketetan.

Hirugarren artikulua.– Lehiaketa honetan esleitu ez diren plaza bete gabe uztea.

Laugarren artikulua.– Destinoa lortu eta jardunean, zerbitzu berezietan edo senitartekoak zaintzeko borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek, lehiaketa honetan aipatzen diren kidego edo eskaletara itzultzen ez badira, 2024ko ekainaren 18an utziko dute kargua.

Bosgarren artikulua.– Lortutako destino berriaz jabetzea hiru egun balioduneko epearen barruan egingo da, kargu-uztearen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, funtzionarioak herriz aldatu behar ez badu; zortzi egun balioduneko epearen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste herri batera aldatu behar badu; eta hogeitun egun balioduneko epearen barruan, baldin eta beste autonomia erkidego batera joan behar badu, honako kasu hauetan izan ezik: Kanarietako Autonomia Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceutako Hiri Autonomoa eta Melillako Hiri Autonomoa; kasu horietan epea hilabetekoa izango da. Lanpostu baten esleipendunak lanpostuaz jabetzean zerbitzu aktibora itzultzea lortzen badu, hogeitun egun balioduneko izango da lanpostuaz jabetzeko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Lanpostuaz jabetzeko epeei dagokienez, lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzen ari diren funtzionarioen kasuan, zerbitzuak ematen ari den herria hartuko da «funtzionarioaren herrizat».

2024ko ekainaren 7a, ostirala

Seigarren artikulua.– Esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin. Justizia Administrazioako Zuzendaritzak horien esleipenaren berri emango dio Justizia Ministerioari.

Zazpigarren artikulua.– Esleitutako lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioek lanpostua utziko dute, titularra lanpostuaz jabetu aurreko egun baliodunean.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Aldi berean argitaratzea lortzen ez bada, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 29a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

2024ko ekainaren 7a, ostirala

ERANSKINA

Zk.	Interesduna	Jatorrizko lanpostua	Antzinateasuna gehienez 60	HE	Merezimendu orokorrak	Funzioak (hila* 0,25 puntu)	Gehieneko prestakuntza, gehienez 14	Argitalpenak, gehienez 14	Merezimendu espezifikokoak	Merezimenduak guztira	Lanpostuko/ Dotazioko	Esleitutako lanpostua
1	Moretin Campillo, Benito	220003/2 Auzitegi Patologia Zerbitzuko Burua	60	8	68	15	14	14	43	111	230003/6	AMEI - Bizkaiaiko Zuzendariordetza. Auzitegi Patologiako Zerbitzua
2	Diaz Oloriz, Monika	230003/3 AMEI Araba - Auzitegi Mediku Aditua- Patologia	45,6277615		45,6277615	15	14	1	30	75,6277615		Esleitu gabe
3	Rodríguez Iturralde, Olga	240001/13 AMEI Bizkaia- Orotariko Auzitegi- Medikua	5,533318	6	11,533318	15	14	13	42	53,533318		Esleitu gabe
4	Molinerro Rojas, Miren Igone	240001/9 AMEI Araba- Orotariko Auzitegi- Medikua	31,9055365		31,9055365	1,25	0	0	1,25	33,1555365	230003/4	AMEI - Arabako Zuzendariordetza. Auzitegi Patologiako Zerbitzua
5	Almena Carbajo, Angel C.	240002/2 AMEI Bizkaia - Orotariko Auzitegi- Medikua	26,733326		26,733326	2,75	0	0	2,75	29,483326	230001/3	AMEI - Bizkaiaiko Zuzendariordetza. Auzitegi Traumatologia Atala
6	Martínez López, Rafael	240001/16 AMEI Bizkaia - Orotariko Auzitegi- Medikua	26,733326		26,733326	2,5	0	0	2,5	29,233326	230002/5	AMEI - Bizkaiaiko Zuzendariordetza. Auzitegi Psikiatriako Atala – Auzitegi Balorazio Integraterako Unitatea